

Igande arratsaldean etxeko lanak egitea gogorra egiten zitzaion Izaskuni. Jakina, nori gustatzen zaio horrelakorik? Baina astean zehar lantegian lan egin beharko zuen eta asteburua aprobetxatu behar zuen etxeko zeregin gehienak bukatzeko: etxeko garbiketa egin, astean zehar Kikek eta berak jantziko zituzten arropak prestatu eta biharamuneko bazkaria kuzinatu.

Gainera, igande hartan Kikerekin izandako liskarra zela eta, kezkatuta zegoen oso. Normala da elkarbizitzan tirabirak sortzea. Are gehiago, bi gazteren arteko harremanetan. Baina haien artekoa gero eta zailagoa zen. Igande hartako goizean, Izaskunek mutil-lagunari haserre bizian esan zion bere bizimoduaz erabat nazkatuta zegoela. Bazituen horretarako arrazoiak. Izan ere, ez zitzaion normala iruditzen berak astelehenetik ostiralera lan egin behar izatea eta mutilak, ordea, asteburuetan bakarrik. Injustua zen, baina makurrena zera iruditzen zitzaion: elkar ikusteko ia paradarik ez izatea, haien arteko komunikaziorik gabe bizitzera kondenatuta balcude bezala.

Halere, Izaskun gehien amorrarazten zuena zen Kikek egoera horrekin konforme ematen zuela eta ez zuela bestelako lanik bilatzeko asmorik. Kikek ez zuen gustuko horretaz mintzatzea. Isildu egiten zen eta sesio guztien akaberan neskari beti esaten zion gauza bera: elkartu bezala banantzen ahal gaitun, lasai, pottoka.

Izaskunek maite zuen, edo hori uste zuen behintzat, eta ez zuen mutila galdu nahi. Egia da mutila, bai jantziak bai tresna elektronikoak erosterakoan, sobera apetatsua zela eta egia da baita ere alokairu garestia pagatu behar zutela Kike auzo garesti horretan bizitzen tematu zelako. *Pijo* haren kapritxoak pagatzeko aste osoa lantegiko garbiketa lan nazkagarriak egiten aritu behar izatea ere! Baina Izaskunek gauzak noizbait aldatuko zirela espero zuen eta horixe jakinarazten zion mutil lagunari:

-Noizbait lan normala izango duk eta etxe normala erosi, bizimodu normala eraman eta familia normala osatuko diagu.

Gaueko hamarrak laurden gutxi inguru izango ziren telefonoak jo zuenean. Kike izango zela pentsatu zuen Izaskunek. Lanetik etxera itzuli beharrean, lagunen batekin afaltzera joango zela esateko, seguruenera. Baina ez. Gerardo zen. Telebistan Itsu Elkarteko zozketa ikusi eta zenbaki saritua berak zeukala adierazi zion: 28.074 zenbakia. Bost kilo! Pisu zaharra saldu eta igogailua zuen beste bat erosiko zuen, juxtu behar zuena! Kikeri deitzeko eta hamarrak eta laurdenetan Irati erretegiaren hirurek afari batez ospatzeko gaineratu zion Gerardok.

Neskak segituan deitu zion Kikeri lanera. Telefonoz bestaldean Kike lehor samar aritu zen, alde batetik goizekoa gogorra izan zelako eta, bestetik, biek bazekitelako ospitalean ez zitzaizela gustatzen lan orduetan langileei inork deitzerik. Gainera, Kikek ez zuen Gerardo gehiegi maite. Izan ere, agure kontakatilu eta petrala iruditzen zitzaion eta neska lagunari askotan esaten zion agure nekagarri hura berari ez zegozkion aferetan sartzen zela. Batzuetan etxera joaten zitzairen eta kalakari egoten zen berandu arte. Horrelakoetan, Kike telebista aurrean edo aldizkariren bat irakurtzen paratzen zen Gerardori batere kasurik egin gabe.

Izaskun etxetik atera eta hamar minutuan-edo erretegiara iritsi zen. Lehena zen, espero zuen kontrara. Izan ere, Gerardo alde zaharrean bizi zen eta, agurearen ibilera arina kontuan hartuta, berandu gabe iritsiko zela uste izan zuen neskak. Kike ere ez egotea ez zitzaion normala iruditzen. Mutila lanetik hamarretan atera ohi zen eta ospitaletik erretegiara ordu laurdena baino gehiago ez zegoen. Horregatik, berehalaxe agertuko zirelakoan, erretegiako barrara arrimatu zen eta gainean zegoen egunkaria hartu zuen zerbitzariari deus ere eskatu gabe. Baina minutuak

pasa arren, ez zen bietako inor ere agertu. Ulergarriagoa zen Kikerena, goizeko haserrealdia gogorra izan baitzen eta agian muturtuta segituko zuen. Gainera, Izaskun ohartu zen afariarenak ez ziola Kikeri grazia handiegirik egin. Gerardorena, ordea, arraroagoa zen. Pertsona alaia eta berritsua zen eta seguru ikusitako mundu guztiari kontatu ziola loteriarena, baina gizon zintzoa eta puntuala ere bazen izan. Zerbait gertatuko zitzaion, bestela erretegiara deituko zuen. Horixe pentsatu eta Izaskunek Gerardoren etxera deitu zuen. Ez zuen telefonoa inork hartu baina. Neska ez zen honetaz harritu zeren, Gerardo aspaldian alargundua eta seme-alabarik gabekoa zenez gero, bakarrik bizi baitzen. Hirian ez zuen seniderik eta Izaskun zen agureak zeukan pertsonarik hurbilena, bere herriko baten alaba zen-eta. Zergatik ez zion deitu berandu ailegatuko zela esateko? Zerbait txarra gertatu zitzaion ideia sendotuz joan zen Izaskunen baitan.

Hamaikak hamar gutxitan ailegatu zen Kike. Neskaren urduritasunaz ohartu eta lasaitzen saiatu zen:

-Badakin petral hori nolakoa den, dagoeneko hiri erdiari kontatu zion loteriarena eta hortik ibiliko dun hemen txanpaina eta hor kopa gutaz arras ahaztuta.

Neskak ere Kike artega eta serio ikusi zuen. Goizean egindako errieta gehiegizkoa izan zela eta barkamena eskatzea pentsatu zuen, baina isilik gelditu zen. Aurrerantzean haien arteko komunikazioa areagotu beharko lukete gauzak ongi ibiliko baziren, baina une hartan ez zuten ez bata ez besteak goizekoa aipatu. Gerardorena pazientziaz hartzeko erabaki eta itxaron aldia arintzeko pintxo eta ardo bana hartu zuten. Mutilak adierazi zuenez, ez zuen espero Gerardo berandu iristerik eta agurea puntual joan eta neskarekin zelakoan, lanetik etxera dutxa bat hartzera joan zen.

-Dutxa bat hartzera? Ez hidan, bada, telefonoz esan dutxa hartu behar huenik –aurpegiratu zion Izaskunek.

-Eta zer? Une hartan ez ninan pentsatu eta... ez zekinat, ez zaidan gustatzen lanean telefonoz mintzatzea. Gainera, zer nahi huen, erien pixa usain nazkagarria afarira ekartzea ala?

Denbora pasa ahala, urduritasuna areagotuz zihoan. Ez zen batere normala. “Berehala noa” esan zion telefonoz eta bere etxetik erretegira, “Reina Victoria” parkea zeharkatuta, hamabost bat minutu zeuden gehienera jota. Hamaikak eta bost ziren eta, horregatik, Izaskun hasi zen pentsatzen Gerardori kupoia ostu nahian, agian norbaitek parkean eraso egin eta hil zuela. Hori pentsatu eta hauxe esan zion mutilari:

-Hau ez duk normala, Kike. Polizari deitu beharko zioagu.

-Polizari? Ero hago! Ezta pentsatu ere!

Neskak Gerardok egin behar zuen bidea hartu nahi zuen agurea bilatu nahian, baina Kikeri ez zitzaion ideia ona iruditu eta ospitaleko langile bati deitzea erabaki zuten. Zerbait gertatuz gero, Larrialdietara eramango zutela pentsatu zuten. Baita asmatu ere. Buruan kolpe bat hartuta eramane berria zen agure bat. Hilda, nonbait. Kikek emandako deskripzioa bat bide zetorren gizonaren ezaugarriekin eta bertaratzeko hitza eman zuen Kikek.

Kike eta Izaskun ospitaleko Larrialdietara iritsi orduko, Sánchez inspektorea esperoan zeukaten. Honek berak azaldu zieten, bortizkeriaz zauritutako baten bat ospitalera sartzen dutenean, derrigorrezkoa eta ohikoa da polizari horren berri ematea. Deus baino lehen hilda zegoela esan zien eta Izaskunen negarra baretu zenean, gorpua ezagutzera joan ziren. Kikek Izaskun besarkatu zuen

une hunkigarri hartan behar zuen babesa emateko. Maindirea altxatu zutenean agurearen aurpegi zurbila ikusi ahal izan zuten. Gerardo zen, dudarik gabe. Buruaren ezker aldean kolpe handia bazuen ere, aurpegia berdin-berdin zeukan, aldaketa nabarmenik gabe.

Luze aritu ziren bi gazteak Sánchez inspektorearekin. Kike lehor eta erantzunak neurtuz erantzuten zion hanka sartu nahiko ez balu bezala. Izaskun, berriz, erantzunetan luze aritzen zen eta hainbeste zehaztasun eta ñabardura ematen zituen, non Sánchez inspektoreak laburtzeko eta galderari atxikitzeko eskatu behar baitzion.

Poliziaren arabera, Gerardok ez zeraman karteran berrogeita hamar euroko hiru bilete eta egutegi bat baizik. Ez karnetik, ez kupoirik, ez besterik. Izaskunen arabera, Gerardok diru gutxi eramane ohi zuen eta gau hartan hiru bileteak afaria pagatzeko eramango zituen, dudarik gabe. Baina harrigarria iruditzen zitzaion kupoia ez eramatea, agurea ezagututa, ziur baitzegoen afarian erakusteko asmoa izango zuela. Garbi zegoen hilketaren helburua ez zela dirua izan, baizik eta kupoia. Lapurrak ez zuen dirua eramango krimenaren eragingarria ezkutatzeko. Izan ere, dirua bertan utzita, nork pentsatuko zuen inork hil zuela lapurtzearen?

-Zutaz gain, nork zekien Gerardori loteria tokatu zitzaiola? -galdetu zion Sánchezek neskari. Izaskunek mutilari begiratu zion lehendabizi eta gero, begiak jaitsita, erantzun zuen:

-Kikek ere bazekien.

-Bai, banekien, baina Gerardo kontakatilu galanta zen eta ziur nago auzo guztiei esan ziela loteriarena.

Sánchez inspektoreak datuak, orduak eta gazteek emandako zehaztasunak koadernotxo beltz batean apuntatu

zituen eta zerbait berri izatekotan telefonoz deituko ziela esan zien.

Ettxerako bidean ere Izaskunek arraro samar ikusi zuen mutila. Serio, urduri eta kezkatuta zegoela iruditu zitzaion. Egia esan, ez zuen espero ospitaletik etxera joango zenik eta gaixo usainarena aitzakia pobrea iruditu zitzaion, sekula ez baitzion horrelakorik entzun. Poliziarekin erakutsi zuen urduritasuna ere ez zen seinale onekoa. Bere mutila Gerardoren bila joan eta kupoia kentzeagatik agurea akabatzearena ideia gogorra zen, oso gogorra, baina ezin zuen baztertu. Gauza ote zen Kike horrelako krimena egiteko? Isilik zihoazen. Ordu haietan ez zen inor kalean ikusten. Giro hotza. Bat-batean Kikek hauxe esan zuen:

-Zerbait esan behar dinat. Pena handia dun Gerardorena. Bazekinat hire aita zenaren lagun mina zela eta maite huela. Benetan sentitzen dinat. Gaixoak ez zinan horrelakorik merezi, baina... tira! Horrek ez din bueltarik. Baina gu biok aurrerantzean hobeki biziko gaitun. Bai. Ikusiko dun. Eta gaurkoa bezalako liskarrik ez dinagu berriz izango.

Neskak azalpenak eskatzeko gogo bizia sentitu zuen, baina hain arraro eta urduri ikusi zuen ezen nahiago izan baitzuen isilik geratu.

Ettxera iritsi eta Izaskun harrituta gelditu zen arropa garbitzeko makina abian entzun zuenean. Lepoa egingo zukeen bere mutilak ez zekiela martxan jartzen behin ere ez baitzen horretan saiatu. Makinaren barruan mutilaren atorra eta prakak ikusi zituen bueltaka eta honetan ere Kikeri azalpenak eskatu beharrean, isilik gelditzea erabaki zuen pista guztiak norabide bakarrean zihoazela ikusi zuen eta. Zertarako galderak egin? Garbi zeukan. Bere mutila hamarretan ospitaleko lanetik atera eta "Reina Victoria" parkera joanen zen agurea beti hortik pasatzen zen-eta. Gerardorekin zeukan konfidantzaz baliatuz, harri batez edo

barra batez edo auskalo zerez buruan kolpe eman eta bertan hilko zuen. Gero karteratik kupoia lapurtu eta etxera joanen zen. Han odol zipriztinez zikindutako arropa erantzi, dutxatu eta erretegira joango zen deus ere gertatu ez balitz bezala. Beharbada horregatik zegoen hain arraro eta urduri, zerbait kontatu behar eta ausartzen ez zelako, hain zuzen ere.

Bai. Izaskunek garbi zeukan. Sánchez inspektoreak ikerketarako pista garbia zeukanez gero, laster hasiko zen etxea miatzen eta gero eta galdeketa zorrotzagoak egiten. Baina bera ez zegoen mutila galtzeko prest. Hori ere oso garbi zeukan. Kikek akatsak eta gabeziak zituen, noski, denok ditugun bezala, baina mutil atsegina zen eta elkar maite zuten. Mutila defenditu behar zuen edozeren gainetik. Behea jota ikusi zuen mutila eta buruko mina ote zuen galdetu zion.

-Bai eta oso nekatuta nagon. Bihar zerbait berezia kontatuko dinat, laztana. Gure artekoa aldatuko dun, dena aldatuko dun, erabat. Ikusiko dun, ikusiko dun.

Izaskunek lasaigarri bikoitza eman zion lo sakona egin zezan eta erabat lo zegoela ziurtatu zuenean, ohetik altxatu eta Kikek lapurtu bide zuen kupoiaren bila hasi zen. Mutilaren arropako sakelak eta kartera arakatu zituen baina ez zuen kupoiaren arrastorik inon aurkitu. “Agian mutila errugabea da eta alferrik ari naiz bila” pentsatu zuen neskak. Egongelako armairu bateko tiradera batean hasi zen arakatzen. Azkenean, hango karpeta urdin txiki batean hainbat fakturaren artean kupoia aurkitu zuen. Han zegoen susmoa errealitate bihurtzen zuen frogak ukaezina! 28.074! Hura zen zenbakia, dudarik gabe. Ongi oroitzen zuen: 28 urte, juxtu bere adina, 74an jaioa... eta zero bat erdian. Oso erraza oroitzen. Bazuen Sánchez inspektoreak etortzea! ez zuen zakur horrek ehizakia harrapatuko, ezta gutxiagorik ere!

Poxpolu edo txiskero bila aritu zen bitartean, zera pentsatu zuen: eta Kikek erositakoa balitz? Baina ideia eroa eta baztertu beharrekoa iruditu zitzaion, Kikek sekula ez baitzuen loterian jokatzeko eta, gainera, penagarria iruditu ohi zitzaion jendeak hainbeste diru horrelako jokoetan xahutzea. Agure bat erailtzeagatik eta lapurretatik zenbat urtetako zigorra ezartzen ahal zioten Kikeri? Hogeia? Hogeita bost? Urte gutxiago izanda ere, ez zuen berak mutila kartzelara joaten utziko eta, poxpolua piztuta, su eman zion kupoiari.

Errautsa bildu zuenean, barneko lasaitasun handia sentitu zuen hainbeste aztoratu zuena desagerraraztea lortu zuelako. Ondoren, 5 milioi pezeta erre izanak biharamuncan Kikeren ilusioa zapuztuko zuela pentsatu zuen, baina kartzela ekiditea askoz ere garrantzitsua zen eta, horregatik, ongi egin izanaren sentipena nagusitu zen bere baitan ohera sartu zenean.

Biharamuncan Izaskun goizean goiz altxatu zen lanera joan behar zuen eta. Dutzatik atera eta harrituta gelditu zen ohi ez bezala Kike sukaldean eta gosaria prestatzen ikusi zuenean.

-Aldatuta ikusten haut aspalditxo honetan, arropa garbitzeko makina abian jartzen, gosaria prestatzen...

-Mintzatu behar gaitun. Bazekinat nolako susmoak ditunan eta zer pentsatzen ari haizen nitaz. Millonarioak gaitun, Izaskun! Ez hadi lanera joan, portzulo hartzera lan guztiak! Kupoi saritua zeukanat: 28074 eta 023 seriea. Zenbakia eta seriea, hi! Hau pagotxa! Seriea ere asmatu dinat, pottoka! Ehun mila euro urtean datozen 20 urteotan!

Neskak inolako pozik adierazi gabe eta deus ere sinetsiko ez balu bezala begiratu zion.

-Egia dun! Atzo lanetik etxera etorri nindunan Interneten begiratzera eta sekula pentsatuko ez nuena egiaztatu ninan: sari nagusia niretako zunan! Segituan erretegira joan nindunan, baina...

---baina isildu hintzen --moztu zuen neskak.

-Nola ez nindunan isilduko, bada! Zer nahi huen, horren berri ematea Gerardo kontakatiluaren esperoan geundenean? Berak berri hori mundu guztian zehar barreiatuko zinan eta horrelakorik ez ninan eta ez dinat nahi, badakin zer gertatzen den...

Neskak sekretuak gordetzen ere bazekiela esan zion, baina haserretu gabe eta mutilaren kontakizuna inkoherente bailitzan.

Kikek, neska konbentzitzeko esperantza galduta balu bezala eta eztabaidari bukaera eman nahian, azalpen labur hau bota zuen: ez zion loteriarena kontatu lehendabizi Gerardoren diskrezio faltagatik eta gero, hil zela jakin zutenean, garbi antzeman ziolako erruduntzat jotzen zuela eta pentsatu zuelako kupoiarena aipatzeak susmoa areagotzea besterik ez lukeela lortuko.

Neskaren irribarre ironikoa ikusita, zera esan zion:

-Hi beti ibiltzen haiz lelo berarekin: ez dugula elkar ikusten..., ez garela mintzatzen... Zertarako mintzatu ez badun entzuten?

Telefonoak jo eta Izaskun joan zen hartzera. Sánchez inspektorea zen. Egunonak eta ohiko hitzak eman ondoren, zera esan zion:

-Hementxe ditut autopsiaren emaitzak. Ez zen hilketarik izan. Autopsiaren arabera, Gerardok tentsio-jaitsiera izan, zorabiatu eta pareta motz baten kontra erori zen. Honela hartu zuen buruan zeukan zauri sakona,

zoritxarrez heriotza eragin ziona. A! Eta beste gauzatxo bat:
Gerardoren txaketako patrika txiki batean kupoi saritua
aurkitu dugu. Dena epailearen esku dago.

Sisedi